



# Urretxuko Aniztasun eta Bizikidetzarako II. Plana

KULTUREN ANIZTASUNETIK  
ANIZTASUNAREN KULTURARA



Urretxuko udala



# Aurkibidea

## 1.Sarrera

## 2.Ibilbidea

## 3.Plana eratzeko prozesua

- 3.1. Informazio iturriak
- 3.2. Jasotako proposamenak
- 3.3. Lan komunitarioa
  - 3.3.1.Politika publikoetan eskuhartzeko estrategiak Urretxuko bizikidetzarako
  - 3.3.2.Ikuspegi komunitarioaren printzipio metodologikoak

## 4.Aniztasunaren kultura

- 4.1. Aniztasuna eta diskriminazioa Urretxun
  - 4.1.1.Pertsona migratzaileak
  - 4.1.2.LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak
  - 4.1.3.Aniztasun funtzionala duten pertsonak
  - 4.1.4.Gutxiengo etnikoak
  - 4.1.5.Beste aniztasun batzuk
- 4.2. Intersekzionalitatea.

## 5.Oinarrizko printzipioak

- 5.1. Aniztasuna erdigunean eta eskubide berdintasuna
- 5.2. Diskriminazio ezaren printzipioa
- 5.3. Ikuspegi komunitarioa
- 5.4. Zeharkako printzipioak
  - 5.4.1.Euskara
  - 5.4.2.Genero ikuspegia
  - 5.4.3. 2030 Agenda

## 6.Helburuak

- 6.1. Helburu orokorrak
- 6.2. Helburu espezifikoak
- 6.3. Helburu operatiboak

## 7.Ekintza plana

- 7.1. Aniztasun eta Bizikidetzaren erreferentzialtasuna indartu.
- 7.2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarrak sentsibilizatu.
- 7.3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.
- 7.4. Edozein herritarrek komunitatean parte hartzeko dituen baliabideak indartu.
- 7.5. Herritarren artean bizikidetzaren eraikitze bitartekoak eman.

## 8.Ebaluazioa eta jarraipena

- 8.1. Barne koordinazioa
- 8.2. Aniztasun eta bizikidetzaren mahaia
- 8.3. Ebaluaketa adierazleak
- 8.4. Plan osoaren ebaluaketa

## 9.Bibliografia

### Eranskina: Ekintza fitxak



# 1. Sarrera

Urretxuko Aniztasun eta Bizikidetza plan hau, Urretxuko Udalak egiten duen bigarrena, ibilbide luze baten hurrengo urratsa da. Prozesu honen hasieran “Kultur Aniztasuna” lantzen zen eta migrazio prozesuak eta kulturartekotasuna jorratzen ziren. Denborarekin, testuingurua aldatzen joan den heinean, “Kultur Aniztasuna” “Aniztasunaren Kultura” bilakatu da eta eskubideetan oinarritutako aniztasuna lantzen du, horretarako abiapuntu hartuta pertsona guztiak askotarikoak garela eta aniztasun horretan dagoela gure aberastasuna. Horra heltzeko, ezinbestekoa izan da komunitateak eta komunitatean egindako lana, aurrerago azalduko den bezala.

Urretxuko Udaleko Aniztasun eta Bizikidetza arloa, bere ibilbidearen hasieratik Gizarte ekimen sailean kokatu da, gizarte langile eta hezitzaileekin elkarlanean.

Aipatzekoa da, bigarren Aniztasun eta Bizikidetza plan honetan proposatzen diren ekintza guztiak komunitatearekin elkarlanean atzeman diren beharrei eta erronkei erantzuna emateko sortu direla. Gehienak, gainera, dagoeneko martxan daude eta planean hobekuntza proposamenak zehazten dira, etengabeko ebaluazioaren emaitzak kontutan hartuta egindakoak.



## 2. Ibilbidea

Jarraian azalduko den moduan, Urretxuko Udalak diskriminazioaren kontrako ibilbide luze eta sakona egin du azken urtetan zehar.

2008. urtean Urretxuko atzerriko pertsonen buruzko diagnostiko kualitatibo eta kuantitatiboa egin zuen Urretxuko Udalak, Prospektiker enpresaren eskutik. Diagnostikoaren helburu nagusia izan zen Urretxun bizi diren etorkinen errealitatea ezagutzea eta gerturatzea.

Ondoren, 2010-2011. urteetan, Urretxuko Udalak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Parte Hartuz ikerketa taldearekin batera, prozesu parte hartzaile bat jarri zuen martxan. Prozesu hartatik Urretxuko Bizikidetzaren eta Immigrazio plana eratu zen. Bertan, Urretxuko bizikidetzaren eragiten zuten aldagaiak identifikatu eta horien inguruko hausnarketa bat egiteaz gain, hori hobetzeko hainbat proposamen luzatu ziren.

Plan hartan honako ondorio hauek atera ziren: bizikidetzaren eragiten duten aldagaiak definitu behar dira, eta horiei buruzko hausnarketa eginez, hau hobetzeko proposamenak egin.

Urretxuko Udalak, plana aztertu eta puntu gatazkatsuenak identifikatu eta gero, partaidetza-prozesurako lehentasunak ezarri zituen. Ildo horretan, Immigrazio eta Bizikidetzaren Planaren proposatzen zen Bizikidetzarako eta Immigrazioarako Mahaia Mistoia sortzea erabaki zen. 2012ko abenduan, Bizikidetzarako Mahaia eratzeko proiektua egin zen eta 2013ko urtarrilean, ofizialki, Mahaia eratu zen. Handik aurrera, planaren proposatzen ziren kulturartekotasuna lantzeko ekintzak garatu ziren.

2014an, aipatutako ibilbideari jarraipena emanez, Elkarbizitzarako Harrera Protokoloa sortu zen. Protokolo horretan arreta berezia eskaini zitzaion biztanle orok, herriko bizitza sozial, kultural eta ekonomikoan parte hartzeko zuten eskubidea bermatzeari.

Hurrengo urteetan, proiektua egonkortu eta sendotu zen, horretarako beharrezko baliabideak jarriaz; ekonomikoak zein pertsonalak. Egonkortze eta sendotze prozesu horrek ekarri zuen ekintza sorta bat izatetik programa egituratu bat edukitzera pasatzea, helburu eta adierazleekin.

2018. urtean, Urretxuko Udalak, Bizikidetzaren Plana lau urte gehiagoz (2019-2022) luzatzeko apustua egin zuen. 2023an, Parte Hartuz ikerketa taldeak planaren ebaluaketa eta egoera diagnostikoa egin zuen, etorkizunean ikuspegi komunitarioa txertatzeko estrategia aztertuz. 2024. urtean datozen 6 urteetarako plana jarriko da abian, dokumentu honetan jasotzen dena.

Azken 13 urtetan zehar, Urretxuko Udaleko Aniztasun eta Bizikidetzaren eremuko lana erreferentziazkoa bilakatu da lurraldean, eta kasu batzuetan, ondoko herrietako biztanleekin ere lan egiten da.

Prozesu honetan, azpimarratzekoak dira hurrengo bi gertaerak:

a. Aniztasuna kontzeptuaren esanahia hedatzen eta zabaltzen joan da. Horrela, aniztasun kulturala eta migrazioetara mugatetik, aniztasun guztiak eskubide ikuspegi batetik lantzerako eboluzioa egin da.

b. Gizartea aldatzen eta eraldatzen joan den heinean, antolatu eta garatu diren ekintzak moldatzen joan dira, eta horregatik, naturalki gertatu diren aldaketa guztiak estrategia berri baten barnean kokatzearen ariketa egin da dokumentu honetan.



## KULTUREN ARTEKO ELKARBIZITZA PROIEKTUA

2016. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak.

**Aurrekontua: 11.164€**

**PROIEKTUAREN BAITAN JARDUERA KOMUNITARIOAK**  
Kulturen azoka  
Bizilagunak ekimena

**PROIEKTUAREN BAITAN APLIKAZIOZKO NEURRIAK**  
"Urretxun bizi gara"

## GFA-KO BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUN PLANA

**Aniztasuna zentzu zabalago batean jaso:** jatorria, etnia, genero nortasuna, adina, orientazio sexuala, erlijioa, osasuna, diru-sarrerak, gaitasun funtzionala... etab.

## ANIZTASUN SAREAK PROIEKTUA

2018. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak, **jatorritik haratago doazen desberdintasunak aintzat hartuz**

**Aurrekontua: 18.131€**

## ANIZTASUNEN BIZIKIDETZA ERAIKI PROIEKTUA

2019. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak, jatorritik haratago doazen desberdintasunak aintzat hartuz

**Aurrekontua: 41.679,84€**

**PROIEKTUAREN BAITAN APLIKAZIOZKO NEURRIAK**  
"Urretxun bizi gara"  
Irakurketa errezerako kluba  
Familia Laguna programa

**PROIEKTUAREN BAITAN SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK**  
Zurumurruen aurkako formazioa



## EJ-AK SUSTATUTAKO AHOLKU SAREAN PARTE HARTU

## ANIZTASUNEN BIZIKIDETZA ERAIKI PROIEKTUA


2020. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak, jatorritik haratago doazen desberdintasunak aintzat hartuz

**Aurrekontua: 35.228,52€**

**PROIEKTUAREN BAITAN APLIKAZIOZKO NEURRIAK**  
Irakurketa errezerako kluba  
Euskaraz eziteko estrategia indartu  
Pagoetako Elkarbizitza Zentroa  
Zentroko lantalde teknikoak abian jarri  
**PROIEKTUAREN BAITAN SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK**  
Aniztasunari buruzko hitzaldia  
iparragirre institutua  
Zurumurruen aurkako formazioa

**PROIEKTUAREN BAITAN JARDUERA KOMUNITARIOAK**  
Escape Room  
Elkarbide paseoak  
Errezetan liburua  
Bizilagunak ekimena

**PROIEKTUAREN BAITAN SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK**  
Zurumurruen aurkako formazioa  
Diskriminazioen atzetik erakusketa



## URRETXU DENONTZAT PROIEKTUA

2021. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak, jatorritik haratago doazen desberdintasunak aintzat hartuz

**Aurrekontua: 40.846,33 €**

**PROIEKTUAREN BAITAN APLIKAZIOZKO NEURRIAK**  
"Urretxun bizi gara"  
"Familia Laguna programa  
Irakurketa errezerako kluba  
Belaualdien arteko bizikidetzaren zentroa





## URRETXU DENONTZAT PROIEKTUA

2022. urtean zehar elkarbizitzarekin lotutako ekintzak, jatorritik haratago doazen desberdintasunak aintzat hartuz

**Aurrekontua: 46.548,33€**

### PROIEKTUAREN BAITAN APLIKAZIOZKO NEURRIAK

"Urretxun bizi gara"  
Irakurketa errezerako kluba  
Belaunaldien arteko bizikidetzaren zentroa



### EGITURAZKO NEURRIAK

Antolakuntza, erabaki hartze eta sareterako egiturak (adibidez, batzorde bat sortu)

### APLIKAZIOZKO NEURRIAK

Desberdintasunei aurre egiteko neurri zehatzak (adibidez, atzerriko familiei harrera)

### SARRERAZKO NEURRIAK

Desberdintasunei aurre egiteko oinarri politiko/ normatiboa eskaintzen duten neurriak (adibidez, plan baten aprobazioa)

### ANALISI/ EZAGUTZARAKO NEURRIAK

Desberdintasunen inguruko ezagutza hobetzera bideratuta dauden neurriak (adibidez, diagnostiko bat)

### SENSIBILIZAZIO RAKO NEURRIAK

Desberdintasunekiko jendartearen sentsibilizazioa sustatzeko neurriak (adibidez, kanpaina bat)

### NEURRI KOMUNITARIOAK

Komunitatearen eraikuntza eta sendotzea ahalbidetzen duten neurriak (adibidez, elkarguneak sustatu)

Iturria: Urretxuko Aniztasuna eta Bizikidetzari buruzko Txostena. Parte Hartuz Ikertaldea (Urretxuko Udala)



## 3. Plana eratzeko prozesua

### 3.1. Informazio iturriak

Alde batetik, 2023an diagnostiko prozesu bat garatu zen “Parte hartuz” ikertaldearen eskutik, eta dokumentuan agertzen diren gomendio eta balorazioak kontuan hartu dira proposamen honetan.

Bestalde, 2023aren amaiera eta 2024aren hasieran, Aniztasun Mahaiko saioetan balorazio prozesuak bideratu dira, Mahaia osatzen duten hainbat kidek galdetegi digital bat bete dute eta aurrez aurreko hainbat elkarrizketa ere egin dira.

Honetaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bi dokumentu hauek erreferentziazkoak izan dira:

[Gipuzkoako Foru Aldundiaren II Aniztasuneko Foru Plana](#)

[Ekintza komunitarioa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa](#)

### 3.2. Jasotako proposamenak

2023an egindako diagnostikoan, ibilbidean ikus daitekeen bezala, azken urteetako eboluzioaren kronograma azaldu da eta etorkizunera begira, bizikidetza eta aniztasuna kudeatzeko hainbat proposamen jaso dira,<sup>1</sup> ahots ezberdinetatik, (teknikariak, Aniztasun eta Bizikidetza mahaikideak eta pertsona migratzaileak) eta hauek kontutan hartu dira ekintza plana osatzeko orduan:

*“...Urretxuko herrian gizarteratzea eta elkarbizitza hobetze aldera pausu garrantzitsuak eman dira azken urteetan. (...) Arazo zein erronkak identifikatu eta horiei aurre egiteko hainbat ekimen martxan jarri da. Eta horien eraginkortasuna nabaria da: Urretxuarren bizikidetza era positiboan deskribatzeak eta herritarrek oro har udaletik bideratutako ekimenak biziki ondo baloratzeak hori erakusten digu.”*

Egindako elkarrizketetan teknikarien, Aniztasun Mahaiko kideen eta migratutako pertsonen ahotsak entzun ziren. Honako hauek izan dira jasotako proposamenak:

- *Harrera eskolak bere espazioa izatea eta berau herrian ezagutarazi.*
- *Elkar-ezagutzarako eta bizipenak partekatzeko espazioak sortzen jarraitu.*
- *Aliantzak sortzeko topaketa, partekatze eta komunikazio guneak sortu.*
- *Helburu berak dituzten herriko eragileen arteko harremanak, sinergiak eta elkarlanak landu.*
- *Ikuspegi komunitarioa landu.*
- *Sentsibilizazio “Kanpainak” egiten jarraitu, oso garrantzitsuak baitira aurreiritziak apurtzeko.*
- *Herrira gehiago zabaldu, ezagutzera eman.*
- *Ezberdinen arteko harremanak eraikitzen jarraitu, formazioaren, informazioaren, sentsibilizazioaren eta bisibilizazioaren bitartez.*
- *Egunerokotasunean lan egin, eguneroko gauza txikietan.<sup>2</sup>*

<sup>1</sup> Urretxuko Udala, *Urretxuko Aniztasuna eta Bizikidetzari buruzko Txostena*, Parte Hartuz Ikertaldea, 2023

<sup>2</sup> *Idem*



### 3.3. Ikuspegi komunitarioa

Aipatu, gainera, diagnostikoan egindako prozesuan Urretxuko Udalak ikuspegi komunitarioari garrantzia berezia eman diola. Izan ere, plana egiteko garaian, kontuan hartu dira diagnostikoan ageri diren analisi eta gomendioak eta “Ekintza komunitarioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa” dokumentuan oinarritu da lana. Horrela, dokumentu hau, aurretik azaldu den moduan, erreferentziazkoa izan da ekintza plana lantzeko orduan.

Diagnostikoaren txostenean egindako analisisia 5 estrategia eta 7 printzipio metodologikoetan oinarritzen da, jarraian azaltzen den moduan:

#### 3.3.1. Politika publikoetan eskuhartzeko estrategiak Urretxuko bizikidetzarako

- Politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea

*“...herriko eragile ezberdinen arteko loturak, harremanak eta elkarlana bultzatzeko beharra sumatzen da, egiten dena herrian ezagutzera gehiago eraman eta herritar ez antolatuen zein zuzenean eragiten ez dieten herritarrengana helduz. Gainera, agenda kolektiboaren metodologiaren bidez, jende gehiago erakartzeko gogoia dago eta hau guztia errealitate bihurtu ahal izateko, ebaluaziorako adierazle erabilgarriak definitzeko beharraz mintzo dira. Azkenik, Urretxuko aniztasunaren erreferente izan daitezkeen pertsonen parte hartze pasibotik parte hartze aktibora jauzi egin gura da.”*

- Gizarte edo komunitate azpiegiturak eraikitzea

*“...espazio horien iraunkortasuna eta jasangarritasuna bermatu eta hauek sustatze aldera, espazio fisiko eta azpiegituren beharra nabarmentzen da. Ez dago herrian aniztasunarekin lotu daitezkeen espazio fisikorik eta horrek, herritarren eta udalaren eta, ondorioz, herritarren eta bertako teknikarien arteko distantzia handitzen du.”*

- Elkarleen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea

*“Aniztasun mahaiak estrategia honen baitan trakzio lana egiten duela ikus daiteke Urretxuko herrian. Bertan, eragile ezberdinak biltzen dira eta bakoitzak egin dezakeen ekarpena balioan jarriz lan egiten saiatzen dira. Hala ere, ezberdinen arteko harremanak duen indarrean azpimarra eginez, horiek eraikitzen jarraitzea proposatzen dute. Mahia aliantzak eraikitzeko gune bezala definitzen dute eta aliantza horiek sortzeari garrantzi handia ematen diotenez, sakontzen jarraitu gura da, eragile gehiago eta ezberdinagoak bilduz. (...) Ondorioz, herriaren aniztasuna osatzen duten pertsonen indarguneetatik eta herriko eragileen indarretik eragiten jarraitzeko beharra dagoela ikus daiteke.”*

- Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzako lan egitea

*“...ekintzetan ikusten da parte hartzerako orduan herriko aniztasuna era osatuago batean ordezkatzeko den bezala, parte hartze aktiboa, antolakuntza eta agentzia politikoa, era nabarmenagoan, izan ditzaketenen artean ez dela modu berdinean ordezkatzeko, ezta gutxiago ere. Beraz, etorkizuneko planteamenduetan, horretan eragiteko beharra nabarmentzen da.”*



- Erakunde barruko eta erakunde arteko aliantzen ko-sorkuntza eta eratzea

*“Barrura begira egiten den hausnarketan artean, aniztasunaren afera, udalean bertan, zeharkakotasunez lantzeko beharra azpimarratzen da. Aniztasunaren irudia eta aldarrikapena, eguneroko egitekoen baitan nabarmendu dadin gura da eta benetan, erabaki guneetan ere presentzia bermatzea.”*

### 3.3.2. Ikuspegi komunitarioaren printzipio metodologikoak

- **Harrera egin:** Babestetik eta konfiantza girotik egitean datza.
- **Ekintza erdigunean jarri:** “horizontaltasunaren bidean badago aurrera pausuak emateko aukera, batez ere, ezaugarri espezifiko jakinak dituzten pertsonen parte hartzearen (eta parte hartze motaren) inguruan.”
- **Presentzia izan:** “Elkar ezagutu eta errekonozitu” beharrarekin zehazten da puntu hau txostenean. “Loturak sortzeko harremanak ohikoa izan behar du, horizontaltasunez emandako elkarrizketen bitartez eta enpatiatik ahalbidetuz.”
- **Bilaketara irten:** “Sarritan, ez da nahikoa ekintza eta espazio batzuk jende guztiarentzat direla esatea, are gehiago gizarte anitz eta ezberdin batean. Aurreko puntuari lotuta beraz, pertsona batzuk ez dira interpelatuta sentituko eta horiengana modu berezian hurbildu behar da, hauen parte hartzea bermatzeko. (...) Etorbizuneko planteamenduetan, beraz, esfortzu berezi bat egitea planteatu daiteke herritar ezberdinengana hurbiltzeko eta parte hartze aktiboa bermatzeko.”
- **Jendearekin bere indarguneetatik lan egin:** “...herritar ezberdinen indarguneak identifikatu eta horietatik eraginez, datozen urteetako estrategien baitan, dinamiketan integratzeko proposamenak egitea ezinbestekoa dirudi.”
- **Barruko pertsonekin lan egin:** “Gaur egun, gizarte zerbitzuak dira, batez ere, Urretxuko dinamiketara pertsonak batzeko kanala eta estrategia komunitarioak bideratzekoa. Hala ere, printzipio metodologiko hau bermatze aldera, herrian zeharkakotasunez landu eta eragin behar da. Pertsona guztiak lan egitea garrantzitsua da dinamika integrala osatu gura bada eta horretarako, egunerokotasunean, herritarrak orok, erabiltzen dituen zerbitzu eta baliabideetan ere egin behar da lan.
- **Lidergo erraztatzaileak:** “...udalak klabe honekin etorkizunean lan egitea garrantzitsua da, erraztatzaile lana egitea eta protagonismoa eta boterea pertsonari ematea, “lidergo erraztatzailea eredu izatean oinarritzen da, eta ezin ditu hartu protagonismo osoa eta erabaki guztiak”. Hori horrela, etorkizunera begira, udalak mahaiarekiko, mahaiak gainerako herritarrekiko eta talde ezberdinetako liderrek gainerako taldekideekiko ikuspegi horrekin ekin dezan bermatu behar da.”



## 4. Aniztasunaren kultura

Azken urteetan Giza Eskubideen esparruan aurrerapausoak eman eta kolektibo ezberdinetako pertsonen eskubideak aitortu diren arren, testuinguru aldakorrean murgildurik gaude eta, gorrotoan oinarritutako arrazoibideek geroz eta indartsuago eragiten dute, bermatutako eskubide eta aurrerapauso guzti horiek arriskuan jarritz.

Bestalde, diskriminazioari dagokionez, hurrengo datuetara jo dezakegu aniztasun ezberdinen aurrean gizarteak erantzuten duen modua islatzeko, beti ere kontutan izanda pertsona oro aniztasun ezberdinek gurutzatzen dutela (aniztasunean interseksionala, diskriminazio anizkoitza), eta horrek diskriminazio eta eskubideen berdintasunean eragiten duela:


### 4.1. Aniztasuna eta diskriminazioa Urretxun

#### 4.1.1. Pertsona migratzaileak

Immigrazioaren Euskal Behatokiaren azken urteko (2023) emaitzak aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen bolumen edota multzotasuna neurritz kanpo dagoenaren aldeko jarrera agertu du euskal gizarteak.

Estatistika ofizialek diote erroldatutako eta erregistratuko jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua bikoiztu egin dela 2022 eta 2023 urteen artean; hala, EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko biztanleria %12,4ra hazi da, baina herritarren pertzepzioa %21,4koa da.<sup>3</sup>

Urretxu udalerriri dagokionez, herritartasun atzerritarra duten pertsonen ehunekoa %7,58koa da (Urretxuko Udala), eta lehen Aniztasun eta Bizikidetzeta Plana egin zenean, 2011an, aldiz, datu hori %4,75koa zen.



Iturria: Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia. <https://www.behagi.eus/>

<sup>3</sup> Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, *Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak, 2023*

2023an egindako diagnostikoan azaltzen den moduan, hauek dira pertsona migratzaileek eskubide berdintasunaren bidean identifikatu diren hainbat oztopo:

*“Pertsona migratzaileen lan egoera prekariora aipatzen da, eta horren eragilea hein batean egoera juridiko irregularrean egotea dela jasotzen da. Horrek beltzean lan egitera bultzatzen baititu, lan baldintza kaskarrak izaten dituztelarik.”*

*“Etxebizitzari dagokionean, alokairuak lortzeko zailtasunak izan ohi dituztela aipatzen da, maizter batzuek batzuetan nahiago dute etorkinei ez alokatzea euren etxeak.”*

Bestalde, aipatzekoa da Urretxuko Udalak, testuinguru honetan, Urretxura etorri berriak diren pertsonen lurraldeko baliabideak erakustea eta sare soziala sortzen laguntzea helburua duen “Urretxun Bizi Gara” Harrera Eskola antolatzen duela urtero. Horrez gain, xenofobian oinarritutako diskriminazioa eragiten duten zurrumurru eta aurreiritziak desegiteko hainbat ekintza egiten ditu urtero.

#### **4.1.2. LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak**

Eskubide-berdintasunaren eta onarpen sozialaren aldeko borrokan, LGTBIQ+ akronimoak genero-identitateen eta sexu-orientazioen aniztasuna irudikatzen du. Akronimo hori 1990eko hamarkadan sortu zen, LGTBIQ+ komunitatea ezagutzera emateko eta euren eskubideak azaltzeko eta aldarrikatzeko. Garai hartan, LGB terminoa baino ez zen erabiltzen, eta urtetik urtera aldatu egin da, kolektibo guztiak barne hartzeko.<sup>4</sup>

Gehituk 2019an argitaratu zuen *“Bizikidetza Aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan”* dokumentuak erakusten duenez, *“erregulazio txikieneko espazioetan aitortzen dituzte LGTBI+ pertsonen diskriminazio gehien, hau da, espazio publikoetan, aisialdi, kultura eta kirolekoetan, baita sare sozialetan eta familia nahiz lagunen esparruetan ere.*

*11.000 biztanletik beherako herrietan errealitate gordin hori areagotu egiten da eta horren ondorioz hainbat herritarrek beren jaioterria uzten dute, anonimatuaren bila eta beren sexualitatearen garapen librearen eta beteagoaren bila.”<sup>5</sup>*

#### **4.1.3. Aniztasun funtzionala duten pertsonak**

Nahiz eta ofizialki aniztasun funtzionala duten pertsonen inguruan hitz egiteko “desgaitasuna” erabiltzen den, Javier Romañach Cabrerok<sup>6</sup> 2005an lehen aldiz proposatu zuen kontzeptu hau, eta honekin, ikuspegi berri bat, negatiboa ez dena, gaixotasunik, urritasunik, paralisirik, atzerapenik eta abar ez dakarrena, aniztasun horren jatorri patologikoa, genetikoa edo traumatikoa edozein izanik ere.

Urretxun, %33 eta %74 bitarteko desgaitasuna zuten pertsona kopurua 478 zen 2023an, eta %75 baino gehiagokoa zutenak 82, zifra horiek Urretxuko biztanleriaren %7,1 eta %1,22-a dira.<sup>7</sup>


<sup>4</sup> Amnistía Internacional – Vega Alonso Del Val, *LGBTIQ+: ¿Cuál es el significado de cada letra?*, 2024

<sup>5</sup> Gehitu, *Bizikidetza Aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan*, 2019

<sup>6</sup> Javier Romanach - Manuel Lobato, *Diversidad funcional, nuevo término para la lucha por la dignidad en la diversidad del ser humano*, Foro de Vida Independiente, 2005

<sup>7</sup> Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia. <https://www.behagi.eus/>





Iturria: Behagi. Gipuzkoako Gizarte Behatokia. <https://www.behagi.eus/>

#### 4.1.4. Gutxiengo etnikoak

Immigrazioaren Euskal Behatokiak 2022an argitaratutako “*Neurtu. EAEko Aniztasunari buruzko barometroa – Ijituekiko perzepzioak eta jarrerak.*” izeneko dokumentuak dioenez: “*Euskal gizartearen ia % 70ak uste du ijitoa izateagatiko diskriminazioa oso edo asko zabaldua dagoela Euskadin; biztanleriak, izan ere, gure gizarte-testuinguruan gehien zabaldua dagoen diskriminazio-mota dela uste du.*”<sup>8</sup>

Bestalde, zurrumurruei dagokionez: “*...biztanleriaren % 40k baino gehiagok ijitoren bati buruzko iruzkin negatiboak edo zurrumuruak entzun izan dituela, eta % 34k baino gehiagok, berriz, isekak, txantxak, txistek, imitazioak edo antzekoak ikusi izan dituela. Gainera, adierazgarria da % 21,1ek ijitoen kontrako irainak ikusi izana, % 12,5ek mehatxuak eta % 10,7k eraso fisikoak.*”<sup>9</sup>

#### 4.1.5. Beste aniztasun batzuk

##### • Aniztasun erlijiosoa

Urretxun fisikoki eliza katolikoa dagoen arren, eta gehien praktikatzen den erlijioa hori bada ere, erlijio musulmana eta ebanjelikoa (kultoa ere deitua) praktikatzen duten pertsona kopuru esanguratsua dago herrian.

##### • Gorputz aniztasuna

Lodifobiaren (pertsona lodiek pairatzen duten egiturazko indarkeria eta gorroto diskurtsoa) kontrako mugimendua nahiko berria da Euskal Herrian, nahiz eta termino honek geroz eta presentzia handiagoa duen. Lodifobiak, beste diskriminazioek egiten duten bezala, eskubide berdintasunean zuzeneko eragina du: lana bilatzeko orduan, harremanetan, osasunean (elikadura-nahasmenduak), etab.

<sup>8</sup> Immigrazioaren Euskal Behatokia, *Neurtu. EAEko Aniztasunari buruzko barometroa – Ijituekiko perzepzioak eta jarrerak*, 2022

<sup>9</sup> Idem

## 4.2. Interseksionalitatea

Interseksionalitatea pertsona bat definitzen duten bi aniztasun mota edo gehiagoren arteko elkarreagin da. Generoak, etniak, ezaugarri fisikoak, kokapen geografikoak edo adinak ez diote pertsona bati modu banatuan eragiten. Aniztasun ezberdinen arteko elkarreaginak diskriminazio mota berriak sortzen ditu, eta bere osotasunean abordatzeko beharra sortzen dute.

Patricia Hill Collins eta Sirma Bilgek diotenez, interseksionalitatea munduaren, pertsonen eta giza esperientzien konplexutasuna ulertzeko eta aztertzeko modu bat da. Bizitza sozial eta politikoko gertakariak eta inguruabarrak, eta pertsona, gutxitan uler daitezke faktore bakar baten bitartez. Oro har, elkarri eragiten dioten faktore askok osatzen dituzte.

Gizarte-desberdintasunari dagokionez, pertsonen bizitza eta gizarte jakin bateko boterearen antolaketa hobeto ulertzen dira, ez ardatz bakar baten arabera, dela ezaugarri fisikoak, generoa edo klasea, baizik eta elkarrekin jarduten duten eta elkarri eragiten dioten ardatz askoren arabera.<sup>10</sup>

<sup>10</sup> Patricia Hill Collins - Sirma Bilge, *Interseccionalidad*, Morata Editoriala, 2019





## 5. Oinarrizko printzipioak

Hauek dira ekintza planaren oinarrian dauden printzipio nagusiak:

### 5.1. Aniztasuna erdigunean eta eskubide berdintasuna

Pentsa liteke ez duela zentzu handirik aniztasun mota ezberdinak plan berean lantzeak, bakoitzaren errealitatea ezberdina delako eta nahasmena sor dezakeelako. Baina gure buruak apur bat urruntzen baditugu, argi ikusi dezakegu badagoela aniztasun guztiek partekatzen duten abiapuntu bat:

**Pertsona guztiak gara anitzak eta horretan datza gure aberastasunak.**

Orduan, aniztasun mota guztiak berdinak al dira? Zergatik behar ditugu aniztasuna lantzeko neurriak? Aniztasun batzuk izateak ez dute gure eguneroko bizitza edo gure eskubideen lorpena baldintzatzen, baina badaude beste batzuk (hauen izaera momentu historiko eta kontestuaren arabera modu batekoa edo bestekoak izango dira), gizarteak baztertu, diskriminatzen dituenak, eta ondorioz, hauek zeharkatzen dituzten pertsonak haien eskubideak bermatzeko orduan zailtasunak edo oztopoak aurkitzen dituzte. Beraz, hor jarriko dugu fokoa, pertsona ororen eskubideen lorpenean, eta ondorioz, bizikidetzaren bidean oztopoak aurkitzen dituzten aniztasunetan.

Horrela, aniztasunaren kontzeptu zabaletik abiatuz, badaude diskriminazio egoera eta eskubideen urraketa jasaten dituzten aniztasunak dituzten pertsonak, eta gainera, horiek, gainjarri egin ohi dira, egoera horiek areagotu edo eraldatuz (intersekzionalitatea). Gipuzkoako Foru Aldundiaren II Aniztasun Planean oinarrituz:

*“...aniztasuna gizarte osoari berez dagokion zerbait eta berezko balio bat izanik, sarritan egoera diskriminatzaileak sorrarazten ditu, giza eskubideak guztiz erabiltzearen kontrakoak direnak eta identifikatu egin behar direnak. Gainera, egoera horiei aurre egin behar zaie, bai instituzioen aldetik, eta baita gizarte osoaren aldetik ere.”<sup>11</sup>*

Gaur egungo errealitatean oinarrituz, aniztasun mota konkretu hauetako batzuk identifikatu ditugu, nahiz eta beti azpimarratuko dugun, denborak aurrera egin ahala gure komunitatea eraldatzen doala eta aniztasunak ere aldatzen joan daitezkeela: atzeritartasuna, itxura fisiko “arrazializatua”, gutxiengo etnikoak, aniztasun funtzionala, LGTBIQ+ kolektiboa, gorputz ez normatiboak eta zeharkako aniztasunak: generoa, adina, etab.

<sup>11</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia, [II Aniztasuneko Foru Plana. Eskubide Berdintasuna](#), 2022



## 5.2. Diskriminazio ezaren printzipioa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Aniztasuneko Foru Planarekin jarraituz, “*Diskriminaziorik ezaren printzipioak egoera berean diren pertsona edo pertsona-taldeek tratu ezberdina jasotzea, edo egoera ezberdinean diren pertsona edo pertsona-taldeek tratu bera jasotzea dakarten kasuak debekatzen ditu.*

*Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak diskriminaziorik ezaren printzipioa berresten du eta gizaki guztiak aske eta duintasun eta eskubide berdinekin jaiotzen direla eta pertsona orok, inolako bereizketarik gabe. Adierazpen horretan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak dei ditzakeela aldarrikatzen du.”<sup>12</sup>*

## 5.3. Ikuspegi komunitarioa

Lehenago aipatu den moduan, diagnostikoa egiteko garaian, mahai-gaineratu zen Aniztasuna eta Bizikidetza arloan ikuspegi komunitarioa txertatzeko beharra. Nahi edo behar horri erantzunez, argitu behar da Aniztasun eta Bizikidetza Mahaian dagoeneko lantzen dela gai hori. Izan ere, bertan elkartzen dira, hilero, antolatu gabeko herritarrak, herritar antolatuak eta erakundeak; maila ezberdinetan lan egiten duen organoa da Aniztasun eta Bizikidetza Mahaia. Ikuspegi horrekin, beraz, elkarlanean aniztasuna balorean jartzen duen eta eskubide berdintasunean diskriminaziorik gabeko Urretxu bat eraikitzeke aukera izango dugu.

## 5.4. Zeharkako Printzipioak

Ekintza planean zeharka kontutan hartzen diren printzipioak hurrengoak dira:

### 5.4.1. Euskara

Urretxuko Udalak apustu irmoa egin du bizitzaren arlo guztietan euskararen erabileraren alde. Bestalde, jakin badaki biztanle migratzaileek mugikortasun handia dutela, bai estatuan, baita Europan ere. Horrek eragiten du migrazio prozesuaren lehen fasean gaztelania izatea komunikazio hizkuntza (eskolatutako biztanleek izan ezik).

Aitzitik, nortasun kolektiboa eta bertakotasuna edo bertako izatearen kontzientzia garatzen doazen heinean, beren bizitzetan euskara integratzeko joera izaten hartzen dute. Horregatik, ondorioztatu da, euskararekiko atxikimendua sustatzeko modu onena bertako biztanleekin eta harrera-kulturarekin loturak sortzea.

Finean, tokian tokiko hizkuntza ofizialak ezagutzeak eta menperatzeak etorritakoen gizarteratzea errazten du, nabarmen; bai ikuspegi ekonomikotik bai eta politikotik ere. Halaber, herritarren arteko bizikidetza hobetzen du eta horrek diskriminazioaren eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko tresna garrantzitsu eta funtsezko bilakatzen du hizkuntza.

<sup>12</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia, [II Aniztasuneko Foru Plana](#), *Eskubide Berdintasuna*, 2022



### 5.4.2. Genero ikuspegia.

Genero berdintasuna bizikidetzarako ezinbesteko baldintza den heinean, genero ikuspegia planean zeharka lantzen da, ekintzen diseinutik abiatu eta horien exekuziora arte, fase guztietan berdintasunaren ikuspuntua txertatzen da.

Horretarako, kontutan edukiko dira: hizkuntza inklusiboa erabiltzea dokumentu eta informazio guztietan; emakumeen partehartzerako oztopoak samurtzeko neurriak; genero ezberdintasunaren eta indarkeria matxistaren errealitatea aitortu eta mahai gainean jartzea; aurretik aipatutako interseksionalitatea, etab.

### 5.4.3. 2030 Agenda.

Urretxuko Udala tokiko Agenda 2030 propioa garatzen ari da, eta plan hau ere bertan txertatu da. Hauek lirateke zuzenean eta udaleko agendan Aniztasun eta Bizikidetzaren planak duen tokia:

*“Pertsonak eta elkarbizitza erdigunean jartzen dituen gizarte berdinzale eta enpatiko” izeneko ildo estrategikoaren barne, “Desberdintasunak murriztuz, pertsona guztiek aukera berdinak izan ditzaten lortzea helburu duen Urretxu” programa dago eta honen ekintza dira “Udalerrri mailan dagoen aniztasuna ezagutzea eta hauen beharrak identifikatzea” eta “Egungo errealitateara egokitutako Aniztasun eta Bizikidetzaren Plana diseinatzea eta aurrera eramatea”.*

Bestalde, Garapen Jasangarrirako helburuen artean Aniztasun eta Bizikidetzaren plan hau hamargarrenarekin egiten du bat, bereziki hurrengo xedeekin:

10.2) Hemendik 2030era bitartean, pertsona guztien gizarteratzea, ekonomikoa eta politikoa sustatzea, haien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste baldintza bat edozein dela ere.

10.3) Aukera-berdintasuna bermatzea eta emaitzen arteko desberdintasuna murriztea, baita lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezabatzea eta horri buruzko legedi, politika eta neurri egokiak sustatzea ere.



## 6. Helburuak

Helburuak 3 mailatan sailkatu dira proposamen honenetan: alde batetik, ekintza orok partekatzen duen helburu orokorra; bestetik, maila konkretuago batean identifikatu diren 3 helburu espezifikoak; eta amaitzeko, ekintzak gidatuko dituzten helburu operatiboak.

### 6.1. Helburu orokorra

Aniztasun eta Bizikidetza arloan Udalaren helburu nagusia hurrengoa da:

*“Herritar guztien eskubide berdintasuna,  
diskriminaziorik eza eta bizikidetza sustatzea,  
zeharkatzen dituzten aniztasun ezberdinak edozein direla ere.”*

### 6.2. Helburu espezifikoak

Helburu orokorrera gerturatzeko asmoz, aipatutako printzipioetan oinarrituz, eta diagnostikoaren emaitzak eta jasotako informazioa kontutan hartuz, hurrengo hiru helburuak identifikatu eta lehenetsi dira:

- Urretxun bizi den pertsona ororen artean tratatu berdintasuna eta diskriminazio eza sustatzea.
- Komunitatean elkar topaketa, hausnarketa, sinergiak eratu eta elkarlanerako espazioak sortzea eta erraztea.
- Aniztasun guztiei erantzun egokia emateko tresna eta baliabideak sortzea.

### 6.3. Helburu operatiboak

Helburu orokorrak markatzen duen bidea jarraituz, azaldutako printzipioetan oinarrituz, diagnostikoan identifikatu diren beharrei erantzuna emanez eta jasotako informazioa kontuan izanik, ezarri ditugun hiru helburuetara iristeko hurrengo 5 helburu operatiboak proposatzen dira:

- Aniztasun eta Bizikidetzaren erreferentzialtasuna indartu.
- Aniztasun eta Bizikidetza baloreetan herritarrak sensibilizatu.
- Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.
- Edozein herritarrek komunitatean parte hartzeko dituen baliabideak indartu.
- Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.

## 7. Ekintza Plana

Helburu operatiboen sailkapena jarraituz, bakoitzera iristeko ekintza ezberdinak proposatzen dira Aniztasun eta Bizikidetzaren plan honetan. Aurrerago, ekintza bakoitzari dagokion fitxa teknikoa dago, informazioaren laburpena eta eskema azaltzen dituena.

### 7.1. Aniztasun eta Bizikidetzaren erreferentzialtasuna indartu.

Diagnostikoan azaltzen den bezala, “erreferentziako espazio baten erabilerak” ikuspegi komunitarioa txertatzeko bost estrategiekin lotura zuzena du, baina bereziki bigarren estrategiarekin: “Gizarte edo komunitate azpiegiturak eraikitzea.”

Horrek ez du esan nahi espazio fisiko batek estrategia horren garapena bermatuko duenik, diseinu fisikoak eta zerbitzuak antolatzeko eta emateko moduak ere eragin zuzena baitute. Esan dezakegu, ordea, erreferentziako espazio fisiko batek herriaren eta Urretxuko Udalaren arteko distantzia murriztuko duela eta elkartruckerako leku aproposa izan daitekeela.

*“Ez dago herrian aniztasunarekin lotu daitekeen espazio fisikorik eta horrek, herritarren eta Udalaren eta, ondorioz, herritarren eta bertako teknikarien arteko distantzia handitzen du. Arrakala horrek ez du estrategia komunitarioa indartzen laguntzen eta ezberdinen arteko elkarrekintza ahalbidetuko duten esparruak beharrezkotzat jotzen dira, hau da, elkar trukaketarako espazioak sortzea.”<sup>13</sup>*

Diagnostikoa Urretxuko udaletxeko gizarte ekimeneko departamentuko obrak amaitu aurrekoa da, eta beraz, garaian ez zegoen Aniztasun eta Bizikidetzaren dinamizatzailearen bulegorik, orain udaletxeko lehen solairuan dagoena. Hurrengo pausoa, toki hori ezagutzera ematea izango da, irisgarritasuna eta gertutasuna bermatuz. Gainera, talde ekintzetarako erreferentziako toki bat ere aukeratu da: Urretxuko Portaloia.

<sup>13</sup> Urretxuko Udala, *Urretxuko Immigrazio eta Bizikidetzarako Plana*, Parte Hartuz, 2011

## EKINTZAK

1.1. Erreferentziako espazio fisikoa finkatu.

1.2. Aniztasuna eta Bizikidetzaren arloa kudeatuko duen dinamizatzailea Gizarte Ekimen departamentuan integratu.

## 7.2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarrak sentsibilizatu

Diagnostikoan jasotako datuen arabera, gaur gaurkoz erabiltzen den komunikazio estrategia ez da nahikoa. Hala, ondorioztatzen da herritar gehienek ez dutela Urretxun Aniztasun eta Bizikidetzaren arloan egiten denaren berri. Hor erronka handi bat du Udalak, ekintza komunitarioari eta diskriminazioaren aurreko babes eta prebentzioa indartzeko komunikazio hori hobetzea.

XXI. mendean aurrera goazen heinean, komunikazioa zeharo aldatu da eta gaur egun, gehiago ala gutxiago, denok erabiltzen ditugu sare sozialak. Horiek hainbat abantaila eskaintzen dituzte: berehalako informazioa partekatu daiteke, ahalegin gutxirekin mezua pertsona askorengana iritsi daiteke, doakoak dira, elkar elikatzen diren mezuak bidaltzeko bide ezberdinak eskaintzen ditu (bideoak, argazkiak, testuak, zuzenekoak,...), herrian garatzen den guztia islatzen du espazio digital berean, parte hartzea sustatzen dute eta herritarrekin zuzeneko interakzioa bideratzen du modu errazean.

Dagoeneko komunikaziorako erabiltzen diren tresnak, hala nola, prentsa idatzia, Whatsapp taldeak eta kartel fisikoak, egokiak diren eta erabiltzen jarraituko diren arren, sare sozialetako profil batekin indartzea proposatzen du plan honek. Hala, Aniztasun eta Bizikidetzaren mezua adin eta profil anitzagoko herritarrengana helaraziz.

Ikuspegi komunitarioari dagokionez, Aniztasun eta Bizikidetzaren arloan garatzen den guztia zabaltzeak eragile gehiago eta aniztasun mota gehiagoren partehartzea ekar dezake, Aniztasun Mahaiaren gaitasunak indartuz.

Horrela, urtero landuko eta planifikatuko da komunikazio estrategia bat, non orain arte erabiltzen diren baliabideez gain, sare sozialak txertatuko diren, Aniztasun eta Bizikidetzaren mahaiaren indarra eta eragina biderkatzeko.

Komunikazio estrategiaren funtzio nagusiak hiru izango dira:

- Aniztasun eta Bizikidetzaren agenda zabaldu: antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko deialdia egin eta horien berri eman, orain arte erabiltzen diren bideen osagarri gisa. Hori guztia, komunikazio protokolo batetan sartuko genuke: ekintza bat antolatzen denean, aurretik adostutako denbora tartean, kartel fisikoa (herriko paneletan jartzeko), Prentsa Oharra, Whatsapp mezua eta Web gunean agertuko den argitalpena diseinatuko dira, eta gehigarri bezala, sare sozial konkretuetan jartzeko ikus-entzunezko materiala ere diseinatu eta zabalduko da.





- Egiten denaren berri eman: orain arte gehien erabiltzen diren tresnei sare sozialak gehitzea. Horrela, Aniztasun eta Bizikidetzaren eremuan lantzen denaren berri zuzenean partekatu ahal izango da. Gardentasuna lantzeko orduan, sare sozialak baliabide estrategikoa dira, prozesu guztien berri emateko herriari, modu erraz eta ulergarrian. Eta gainera, herritarrekin zuzeneko interakzioa izateko aukera eskaintzen dute.

- Sentsibilizazioa egin: komunikazio estrategia bat aurreiritzi eta estereotipoak desagiteko, pertsona ororen eskubideen inguruan eta aniztasun mota bakoitzaren ezaugarri espezifikoaren inguruan informazioa partekatzeko. Azken finean, bizikidetzaren sustatzeko dibulgaziorako bide bat izango litzateke. Adibidez, Zurrumurruen aurkako estrategian oso tresna baliagarria izan daiteke.

## EKINTZAK

2.1. Sare sozialetako perfilak sortu eta kudeatu

2.2. Komunikazio estrategia diseinatu eta kudeatu

2.3. Agenda zabaldu

2.4. Sentsibilizazioa egin

2.5. Informatu



### **7.3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu**

Egindako elkarriketetan eta Mahaian jasotako informazioari erantzunez, eta herriko maila guztietan aniztasunaren eta tratu berdintasunaren printzipioak zeharka landu daitezzen, Aniztasun eta Bizikidetzaren eremutik hiru mailatan lantzea proposatzen da: zerbitzu publikoak, elkarteak eta herritarrak.

- **Zerbitzu publikoei zuzendurikoa:**

#### **7.3.1. Harrera protokoloaren garapena eta kudeaketa.**

Urretxun urtetan landu den Harrera Protokoloa eguneratu eta martxan jarriko da. Horretarako material berriak sortuko dira aniztasun arloan lanean diharduten eragileen ekarpenekin.

#### **7.3.2. Aniztasun ezberdinen inguruko formakuntza kapsulak eskaini.**

Zerbitzu publikoetako profesionalek adierazi dute haien lanetan aniztasuna lantzeko beharra dutela. Aldi berean, egunerokoa duten lan karga dela eta, ez dute gai hau behar bezala lantzeko tarterik hartzen. Gauzak horrela, tratu berdintasuna eta diskriminazio eza oztopatu dezaketen zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoen inguruko formakuntza kapsulak eskaintzea komeni dela baloratu da.

Formakuntza horiek, online formatuan edo aurrez aurrekoan, dagoeneko eskuragarri dauden baliabideak erabiliz eskainiko dira (Biltzen, Berdinduz,...), eta behar izanez gero, Aniztasun eta Bizikidetzaren zerbitzuaren esku geratuko dira.

#### **7.3.3. Gertaera konkretuetan aholkularitza.**

Eguneroko bizitzan gertatzen diren egoera konkretuen kudeaketarako aholkularitza eskainiko da, betiere helburua pertsona ororen eskubideak eta tratu berdintasuna bermatzea izanik.

- **Elkarreei zuzendurikoa:**

#### **7.3.4. Aniztasun konkretu baten edo gehiagoren inguruko elkartegintza sustatu.**

Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzeari (Foru Aldundiak ikuspegi komunitarioa xertatzeko proposatzen duen 3. estrategia) begira, Aniztasun Mahaian parte hartzea sustatzeaz gain, haien antolakuntzarako babesa eta aholkularitza eskainiko zaie.

- **Herritarrei zuzendurikoa:**

#### **7.3.5. Banakako orientazioa.**

Edozein herritar gerturatu ahal izango da haren eskubideen inguruko informazio bila, eskubide urraketa konkretu edo diskriminazio egoera batean egongo balitz, nora jo behar duen eta zein urrats eman behar dituen jakin dezan.



### 7.3.6. Harrera Eskola.

Lehen aipatutako Harrera Protokoloaren eremuan, atzerritik etorritako pertsona orok jasoko du informazio konkretua: bertan iritsi bezain pronto jarraitu beharreko pausoak, Agenda kolektiboan txertatzeko aukera edo Aniztasun Mahaian parte hartzeko aukera landuko dira, besteak beste.

Orain arte, udazkenean urtero garatu den Harrera Eskola, Harrera Protokoloaren barne dagoen ekintza den heinean, hemen kokatuko litzateke:

“Urretxun Bizi Gara” Harrera Eskola, Urretxun berriak diren pertsonen zuzenduriko formakuntza eta topaketa espazioa da. Honen bitartez, lurraldean eskuragarri dauden funtsezko baliabide ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute: osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak, euskara, kultura, atzerritartasun tramiteak, birziklapena, etxebizitza eta lan bilaketa, etab.

Ikastaroa, urtero lez, iraila eta abendua bitartean garatuko da, astean bitan, 3-4 orduko saioen bidez. Ezagutza guzti horiek eskualdeko teknikari eta agenteekin koordinatua eskaintzen dira. Horrez gain, ikastaro amaierara iristean, parte hartzaileek Urretxu-Zumarragako elkarte ezberdinekin elkarlanean praktikaldia egiteko aukera izango dute.

## EKINTZAK

3.1. Harrera protokoloaren garapena eta kudeaketa.

3.2. Aniztasun ezberdinen inguruko formakuntza kapsulak eskaini.

3.3. Gertaera konkretuetan aholkularitza.

3.4. Aniztasun konkretu baten edo gehiagoren inguruko elkartegintza sustatu.

3.5. Banakako orientazioa.

3.6. Harrera Eskola

## 7.4. Edozein herritarrek komunitatean parte hartzeko dituen baliabideak indartu

Orain arte, komunitatean parte hartzeko oinarrizko organoa Aniztasun eta Bizikidetzeta Mahaia izan da eta plan berri honek lan egiteko modu horri jarraipena ematea proposatzen du, aurretik egindakoak eguneratu eta lantzen jarraitzea. Horrela, Aniztasun eta Bizikidetzeta Mahaia hilero bilduko da, orain arte bezala, eta haren funtzioak hurrengoak izaten jarraituko dute:

- Komunitatean gertatzen diren diskriminazioen behatoki lana egitea.

Orain arte egin den moduan, herrian aniztasun baten bati lotutako diskriminazio arrazoiengatik eskubide urraketaren bat gertatzen denean erreferentziazko espazioa izango da hau; bertan definituko da erantzun kolektiboa emateko estrategia. Gainera, antzeko gertaerak ematen direnean, ekintza edo neurri konkrituak proposatu ahal izango ditu (mahaiak) udalari eta komunitateari begira.

- Aliantzak eta sinergiak sortzea.

Espazio hau izango da, gaur egun gertatzen den moduan, komunitatean, elkarte eta bizilagunen arteko aliantzak eta sinergiak sortzeko espazio aproposa. Horiek, agenda kolektiboaren barne sortzen diren topaketa eta lan dinamiketan sortu ohi dira.

- Agenda kolektiboa eraikitzea.

Komunitateko agente guztien ekarpenak kontuan harturik, urteko Agenda kolektiboa eraikiko da, betiere, Bizikidetzaren norabidea ardatz hartuta. (ikus 5. atala)

- Lidergoak lantzea.

Diagnostikoan aipatutakoaren harira, komunitateko lidergo klabeak lantzean pertsona eta kolektibo gehiagorengana iristeko aukera zabaltzen da, beraz, Aniztasun eta Bizikidetzeta Mahaiaren eremuan, lidergo klabeekin lan egiteko estrategia definituko da.

## EKINTZAK

### 4.1. Aniztasun eta Bizikidetzeta Mahaiaren dinamikak garatu eta kudeatu.





## • Aniztasun Jaia

Urretxuko Aniztasun Jaia eskualdean elkar bizi diren pertsona ororen Aniztasuna balorean jartzen duen topaketa eta ospakizunerako jardunaldia da. Jai hau, Aniztasun eta Bizikidetzeta Mahaia antolatzen duen bizpahiru hilabeteko parte hartze prozesu baten ondoren ospatzen da, orain arte egin den moduan.

Jardunaldian zehar hiru espazio bereizten dira: munduko jakien erakusketa eta dastatzea, aniztasuna ardatz duten ikuskizunak eta tailerrak.

Hurrengo urteetara begira, herritarren arteko komunikazioa, elkarlana sustatzeko helburuarekin, erakusketaren ordeztu parte hartzea indartzeko ahalegina egingo da. Adibidez, marokoar emakume batek herritarrei henna egin ordeztu, henna egiten ikasteko tailerrak antolatuko dira. Horrela, ohitura honen esanahia ezagutu ahal izango da eta pertsonen arteko interakzioa handituko da.

## • Zurrumurruen kontrako hezkuntza proiektua

Herriko hezkuntza komunitatearekin elkarlanean, zurrumurruek gazteen artean desagiteko helburuarekin garatzen den ekintza da hau. Aniztasun Mahaiko talde eragile batean bilduta, estrategia, metodologia eta edukiak landuko dira, urtero, udaberrian zehar, hurrengo ikasturtearen hasieran, udazkenean, alegia, garatzeko asmoz. Horrela, aurreiritziak eraiki eta diskriminazioz kutsatutako jarrerak sortzen dituzten zurrumurruek desagitez, bizikidetzaren norabidean aurrerapausoak emango ditugu.

Prozesu hau 3 etapatan banatzen da: errealitatea aztertu eta hausnarketa egin, estereotipo eta aurreiritzien funtzionamendua ezagutu, eta azkenik, sormena eta artearen bitartez, landutakoa adierazi, taldeka.

## • Zurrumurruek desagiteko aisialdi eskaintza

Herritarren artean bueltaka dabilzan zurrumurruek desagiteko ekintzak ahalik eta jende gehienari zabaltzeko bide egokiena da ekintza horiek aisialdian txertatzea. Hala, tarte atsegin batean aniztasunari buruzko barne hausnarketa sortzeko aukera izango da. Gainera, ekintza horiek Aniztasuna eta Bizikidetzeta arloan egiten den lana zabaltzeko eta partehartzea sustatzeko espazio aproposak izan daitezke. Ekintza puntualak eta aldakorak izango dira, urtero gai ezberdinen inguruan.

## • Irakurketa Errazeko Kluba

Irakurketa errazeko klubak aditu batek kudeatzen dituen topaketa espazioak dira. Saioen dinamika irakurketarako edo hizkuntza horren ulermenerako edonolako zailtasunak dituzten pertsonen beharretara egokitzen diren materialen irakurketan datza. Material horiek, izenak berak dion moduan, irakurketa errazaren metodologia erabiliaz idatzi dira.

Saio hauen bitartez, sozializazioaz gain, informazio idatziarekiko sarrera sustatzen da informaziorako eskubidea bermatuz.





- **Laburmetraia zikloa**

Aniztasuna eta Bizikidetzaren arloan, diskriminazioari, eskubide urraketari edo beste edozein errealiteri buruzko hausnarketa egiteko asmoz, herriko baliabide kulturalaz baliatuz, urtero, laburmetraia ziklo tematiko bat antolatuko da.

Ikus-entzunezko pieza bakoitza ikusi ondoren, solasaldirako espazioa irekiko da eta egoki ikusten bada, gaian adituak diren pertsonak edo zuzenean errealitate hori ezagutzen duten pertsonak gonbidatuko dira.

## EKINTZAK

5.1. Sukaldanitzak

5.2. Giza Liburutegia

5.3. Aniztasun Jaia

5.4. Zurrumurruen kontrako hezkuntza proiektua

5.5. Zurrumuruak desagiteko aisialdi eskaintza

5.6. Irakurketa Errazeko Kluba

5.7. Laburmetraia zikloa



## 8. Ebaluazioa eta jarraipena

Ekintza planaren egokitzapenak eta hobekuntzak egiteko orduan, baliozko informazioa eskaintzeko helburuarekin garatuko diren ekintza orok ebaluaketa adierazleak izango ditu. Horrela, urtero neurtu ahal izango dugu strategiaren jarraipen eta betetze maila.

Etengabeko ebaluazioa egiteko espazio nagusiak barne koordinazio bilera teknikoak eta Aniztasun eta Bizikidetza Mahaia izango dira:

### 8.1. Barne koordinazio bilerak

Aniztasun eta Bizikidetza arloa Gizarte Ekintza saileko parte da, eta hortaz, astero koordinazio bilerak egingo dira Gizarte Ekintzako koordinatzaile eta teknikariek, planaren norabidea aztertu eta bermatzeko. Bilera horietan aktak jasoko dira, urteko txostenean erabiliko direnak.

Gainera, urtero, ekintza bakoitzaren exekuzioaren amaieran, ebaluaketa txosten espezifikoak egingo da, horri dagozkion adierazleak eta informazio iturriak kontuan hartuz.

### 8.2. Aniztasun eta Bizikidetza Mahaia

Hilero biltzen den Aniztasun eta Bizikidetza Mahaia izango da planaren jarraipen kualitatiboa egiteko espazioa eta hobekuntzak eta proposamenak egiteko prozesuak ere bertan gertatuko dira.

Horrela, bilera horietan ekintza bakoitzari buruzko nondik norakoak partekatuko dira, zalantzak argituko dira eta ekarpenik balego, proposamenak jaso eta barne koordinazio bileretan baloratuko dira. Horrek, komunitatearen parte hartze jarraia bermatuko du.

Gainera, urteko azken bilera eta hurrengo urteko lehenengoak, ebaluaketarako eta planifikazioa eraikitzeko saio partehartzaileak izango dira, guztien ekarpen eta balorazioak hurrengo urteko planifikazioan txertatu ahal izateko.

### 8.3. Ebaluaketa adierazleak

Ebaluaketarako adierazleei dagokionez, ekintza bakoitzak bere adierazle propioak izango ditu eta horiek neurtzeko tresnak ere definituko dira. Bestalde, ekintza planaren estrategia eta norabidea baloratzeko eta urtero hobekuntzak egiteko, ekintza guztien ebaluaketa bateratua egingo da hurrengo adierazleen arabera:

- Aniztasun ezberdinei buruzko ezagutza areagotzearen hautematea Urretxuko herritarren artean.
- Urretxun tratu berdintasun eta diskriminazio ezaren alde era aktiboan parte hartzen duen herritar eta erakunde kopurua.



#### 8.4. Plan osoaren ebaluaketa

Ekintza plan hau 2024 - 2030 urte bitarterako proposatzen da eta epe hori amaituta, kanpo ebaluaketa bat egitea gomendatzen da, 2023an egin zen moduan, kontestua aztertze eta hurrengo pausoak definitzeko. Prozesu horrek, gainera, argitasuna ekarriko du eta sei urte hauetako ezagutza bildu ahal izango du.







## 9. Bibliografia

- Amnistía Internacional – Vega Alonso Del Val, *LGBTIQ+: ¿Cuál es el significado de cada letra?*, 2024
- Behagi - Gipuzkoako Gizarte Behatokia, <https://www.behagi.eus/>
- Gehitu, *Bizikidetzaren Aniztasunean. LGTBI+ populazioaren errealitateen diagnostikoa Gipuzkoan*, 2019
- Gipuzkoako Foru Aldundia, *II Aniztasuneko Foru Plana*. Eskubide berdintasuna, 2022
- Gipuzkoako Foru Aldundia, *Ekintza komunitarioa: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa*, 2022
- Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, [Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak](#), 2023
- Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, [Neurtu. EAEko aniztasunari buruzko barometroa ljiitoekiko pertzepzioak eta jarrerak](#), 2022
- Javier Romanach - Manuel Lobato, *Diversidad funcional, nuevo término para la lucha por la dignidad en la diversidad del ser humano*, Foro de Vida Independiente, 2005
- Patricia Hill Collins, Sirma Bilge, *Interseccionalidad*, Ediciones Morata, 2019
- Urretxuko Udala, *Estudio - Diagnóstico sobre la inmigración en Urretxu*, Prospektiker, 2009
- Urretxuko Udala, *Urretxuko Immigrazio eta Bizikidetzarako Plana*, Parte Hartuz, 2011
- Urretxuko Udala, *Elkarbizitzarako Harrera Protokoloa*, 2014
- Urretxuko Udala, *Urretxuko Aniztasuna eta Bizikidetzari buruzko Txostena*, Parte Hartuz Ikertaldea, 2023







# ERANSKINA: EKINTZA FITXAK







Helburu operatiboa	1. Aniztasun eta Bizikidetzaren arloaren erreferentzialtasuna indartu		
Ekintza	1.1. Erreferentziako espazio fisikoa finkatu		
Deskribapen Laburra	Aniztasunaren arloan, erreferentziako espazio ziurra izango da.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Urretxuko Udala	Nori zuzendurikoa?	Urretxuko herritarrei
Espazioa	Komunitatetik gertu, zentzu zabalean.		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Parte hartu duen pertsona kopurua		
	Garatutako ekintza kopurua		
Emaitza	Parte hartzaileen balorazioa		
	Parte hartu duen pertsonen aniztasuna		







Helburu operatiboa	1. Aniztasun eta Bizikidetza arloaren erreferentzialtasuna indartu		
Ekintza	1.2. Aniztasuna eta Bizikidetza arloa kudeatuko duen dinamizatzailea Gizarte Ekimen departamentuan integratu		
Deskribapen Laburra	Dinamizatzaile batek kudeatu eta koordinatuko du Aniztasun eta Bizikidetza saila eta espazioa, zerbitzuak eskaini eta bertan garatzen diren ekintzak antolatu eta garatu ere. Pertsona hau erreferentziatzeko pertsona da.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Urretxuko Udala	Nori zuzendua?	Urretxuko herritarrei
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Pertsona bat izendatu da Aniztasun eta Bizikidetza arloa dinamizatzeke		
Emaitza	Aniztasuna eta Bizikidetza arloan erreferentziatzeko dinamizatzailea badago		



Helburu operatiboa	2. Aniztasun eta Bizikidetza baloreetan herritarrek sentsibilizatu.		
Ekintza	2.1. Sare sozialetako perfilak sortu eta kudeatu		
Deskribapen Laburra	Urretxuko Aniztasun eta Bizikidetza arloari dagozkion perfilak sortuko dira, eta aurretik definitutako estrategiari jarraituz, edukiak argitaratu, iruzkinak kudeatu eta egingo dira.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Urretxuko herritarrei
Espazioa	Internet sarea		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Sare sozialetako perfilak sortuak izan dira		
	Sareetan egindako argitalpen kopurua		
Eraitza	Gaiaren erreferentziakoa den sarea martxan dago		





Helburu operatiboa	2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarren sentsibilizazioa.		
Ekintza	2.2. Komunikazio estrategia definitua diseinatu eta kudeatu		
Deskribapen Laburra	Komunikazio strategiaren barne, urtero bidali nahi diren mezuak, bideak eta elementuak definituko dira, komunikabide bakoitzak haren papera beteko duen moduan.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Urretxuko herritarrei
Espazioa	Internet sarea		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Komunikazio estrategia definitzeko bilera kopurua		
	Erabilitateko komunikabide kopurua		
Emaitza	Herriko maila ezberdinetan mezua iritsi da		



Helburu operatiboa 2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarren sentsibilizazioa.

Ekintza 2.3. Agenda zabaldu

Deskribapen Laburra Elkartrukerako ekintza ezberdinetan parte hartzeko deialdia egin eta hauen berri eman, orain arte erabiltzen diren bideen osagarri gisa.

Elkarlanean BAI EZ X Norekin? [Redacted]

Aniztasunak Guztiak Orokorrean X Konkreteriki [Redacted]

Arduraduna Dinamizatzailea Nori zuzendua? Urretxuko herritarrei

Espazioa Internet sarea, prentsa idatzia, ikusentzunezko prentsa, irratia...

Adierazle mota Adierazleak

Ekintza Sare sozialetan argitaratutako "post" kopurua  
Prentsan agertutako aldi kopurua

Emaitza Antolatzen diren ekintzek jasotzen duten parte hartze maila  
Komunikabideetan, orokorrean, izandako inpaktu kopurua



Helburu operatiboa 2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarrak sentsibilizatu.

Ekintza 2.4. Sareen bitartez sentsibilizazioa egin

Deskribapen Laburra Aurreiritzi eta estereotipoak desagiteko, pertsona ororen eskubideen inguruan eta aniztasun mota bakoitzaren ezaugarri espezifikoaren inguruan informazioa partekatzeko. Azken finean, bizikidetzaren sustatzeko dibulgazioa izango litzateke.

Elkarlanean BAI  EZ  Norekin? Mahaiarekin, kolektibo espezifikoekin,.. Mezuaren arabera.

Aniztasunak Guztiak Orokorrean  Konkreterik

Arduraduna Dinamizatzailea Nori zuzendua? Urretxuko herritar orori, nahiz eta gai konkretu baten inguruan populazioa segmentatu daitekeen.

Espazioa Internet sarea

Adierazle mota Adierazleak

Ekintza Sare sozialetan argitaratutako "post" kopurua  
Landutako gaien kopurua

Eraitza Sarean gertatutako interakzio kopurua  
Hilabetero lantzen diren aniztasun gai ezberdinak sareetan



Helburu operatiboa

2. Aniztasun eta Bizikidetzaren baloreetan herritarren sentsibilizazioa.

Ekintza

2.5. Informatu

Deskribapen Laburra

Egiten denaren berri eman: orain arte gehien erabiltzen diren baliabideak erabiltzen jarraituz, sare sozialak gehitzea gomendagarria litzateke, horrela, Aniztasun eta Bizikidetzaren eremuan lantzen denaren berri zuzenean partekatu ahal izango da.

Elkarlanean

**BAI**

**EZ** X

Norekin?



Aniztasunak

Guztiak Orokorrean



Konkretuki



Arduraduna

Dinamizatzailea

Nori zuzendua?

Urretxuko herritar orori

Espazioa

Internet sarea, prentsa idatzia, ikusentzunezko prentsa, irratia...

Adierazle mota

Adierazleak

Ekintza

Sare sozialetan argitaratutako "post" kopurua

Prentsan agertutako aldi kopurua

Emaitza



Antolatzen diren ekintzek jasotzen duten parte hartze maila

Komunikabideetan, orokorrean, izandako inpaktu kopurua



Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.1. Harrera protokoloaren garapena eta kudeaketa.		
Deskribapen Laburra	Urretxun 2014 urtean sortu zen Harrera Protokoloa eta, aldaketa gehiegi egin gabe, dokumentua eguneratu eta berriro martxan jarriko da. Horretarako ere, materialak komunitatearen parte hartzeaz baliatuz eguneratuko dira.		
Elkarlanean	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>	Norekin? Udal sail ezberdinekin
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean <input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	Konkretuki Atzeritartasuna
Arduraduna	Dinamizatzailerak	Nori zuzendua?	Herrian iritsi berriak diren pertsoneri
Espazioa	Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Banatutako hiztegitxo kopurua		
	Banatutako baliabide mapa kopurua		
Emaita	Dokumentua eguneratua dago		
	Protokoloa udaleko sailetan erabiltzen da		







Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.2. Formakuntza kapsula banku bat sortu, barne eta kanpo baliabideekin.		
Deskribapen Laburra	Zerbitzu publikoekin egindako elkarlanaren bitartez ikusi da haien lan errealitatearekin bat egingo duten baliabideak eskaintzea ezinbestekoa dela, lan karga eta ardura pisutsuak direla eta. Horrela, tratu berdintasuna eta diskriminazio eza oztopatu dezaketen zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoen inguruko formakuntza kapsulak eskaintzea komeni dela baloratu da.		
Elkarlanean	BAI	EZ <input checked="" type="checkbox"/>	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean	<input checked="" type="checkbox"/>	Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Zerbitzu publikoetako langileei
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Eskaintitako formakuntza kapsula kopurua		
	Sortutako edo antolatutako formakuntza kapsula kopurua		
Emitza	Zerbitzu publikoek jasotako formakuntza kapsula kopurua		
	Egin diren formakuntza kapsulen ikasleen balorazioa		







Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.3. Aholkularitza zerbitzua finkatu.		
Deskribapen Laburra	Eguneroko bizitzan gertatzen diren egoera konkretuen kudeaketarako aholkularitza eskainiko da.		
Elkarlanean	BAI	EZ	Norekin?
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Zerbitzu publikoetako langileei
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Lagundutako kasu kopurua		
	Egindako bilera kopurua		
Emaitza	Kudeatutako egoeren balorazioa		





Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.4. Elkartegintza sustatzeko zerbitzua eskaini eta kudeatu.		
Deskribapen Laburra	Aniztasun Mahaian parte hartzea sustatzeaz gain, haien antolakuntzarako babesa eta aholkularitza eskainiko zaie.		
Elkarlanean	<b>BAI</b>	<b>EZ</b> 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Herriko elkarteei
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Lagundutako elkarte kopurua		
	Egindako aholkularitza kopurua		
Emaitza	Elkarteen balorazioa		





Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.5. Banakako orientazioa egin.		
Deskribapen Laburra	Edozein herritar gerturatu ahal izango da haren eskubideen inguruko informazio bila, eskubide urraketa konkretu edo diskriminazio egoera batean egongo balitz nora jo eta jarraitzeko pausoak ezagutu ditzan.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzaileria	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Lagundutako kasu kopurua		
Emaitza	Elkarteen balorazioa		





Helburu operatiboa	3. Herri inklusiboago bat lortzeko bidean, inplikaturako agenteen arteko lan bateratua garatu.		
Ekintza	3.6. Harrera Eskola antolatu eta garatu.		
Deskribapen Laburra	“Urretxun Bizi Gara” Harrera Eskolaren bitartez, lurraldean eskuragarri dauden funtsezko baliabide ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute herrira etorri berri direnek: osasun, gizarte eta hezkuntza zerbitzuak, euskara, kultura, atzerriartasun tramiteak, birziklapena, etxebizitza eta lan bilaketa, etab.		
Elkarlanean	BAI 	EZ	Norekin? Lurraldeko agente anitzekin
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki Atzerriartasuna
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Urretxun berriak diren pertsonei
Espazioa	Aizpuruenea Kultur Etxea		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Garatutako saio kopurua		
	Landutako gai kopurua		
	Parte hartu duen elkarte / erakunde kopurua		
Emaita	Graduatutako pertsona kopurua		
	Izena eman duen pertsona kopurua		
	Parte hartzaileek egindako balorazioa		



Helburu operatiboa	4. Edozein herritarrek komunitatean parte hartzeko dituen baliabideak indartu.		
Ekintza	4.1. Aniztasun eta Bizikidetzaren Mahaiaren dinamikak garatu eta kudeatu.		
Deskribapen Laburra	Orain arte, komunitatean parte hartzeko oinarrizko organoa Aniztasun eta Bizikidetzaren Mahaia izan da eta plan berri honek lan egiteko modu horri jarraipena ematea proposatzen du, aurretik egindakoak eguneratu eta lantzen jarraitzea.		
Elkarlanean	BAI <input checked="" type="checkbox"/>	EZ <input type="checkbox"/>	Norekin? Komunitate osoarekin
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean <input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	Konkretuki <input type="checkbox"/>
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Gizarte Ekimen Saila - Urretxuko Udala		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Egindako bilera kopurua		
	Taldean antolatutako ekintza kopurua		
Emaitza	Parte hartu duten pertsona, elkarte eta erakunde kopurua		
	Parte hartu duten pertsona/elkarte/erakundeek egindako balorazioa		



Helburu operatiboa	5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.		
Ekintza	5.1 Sukaldanitzak		
Deskribapen Laburra	Sukaldanitzak egitasmoak aniztasuna eta sukaldaritza batzen ditu, izenak berak dion bezala. Horrela, sukaldaritza tailerrak direla medio, jatorri ezberdinetako pertsonak elkar ezagutzarako espazioa aurkituko dute lapiko artean aurreiritziak hautsiz.		
Elkarlanean	BAI 	EZ	Norekin? Goierri KE
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki Aniztasun kulturala
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Goierri KE-ko elkarte gastronomikoan		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Egindako tailer kopurua		
Emaita	Parte hartu duen pertsona kopurua, sexu eta jaioterriaren arabera		
	Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa		



Helburu operatiboa	5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.		
Ekintza	5.2. Giza Liburutegia		
Deskribapen Laburra	Herriko liburutegian antolatzen den ekintza honetan pertsonak talde txikitan bilduko dira "pertsona-liburuen" kontakizunak entzun eta elkarrizketa egiteko. Prozesu honen bidez partekatzen diren istorioak bizirik daude.		
Elkarlanean	BAI	EZ <input checked="" type="checkbox"/>	Norekin? <input type="text" value="—"/>
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean	<input checked="" type="checkbox"/>	Konkretuki <input type="text" value="—"/>
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Urretxuko Liburutegia		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Antolaketa bilera kopurua		
	Parte hartu duten pertsona-liburu kopurua		
Emaitza	Parte hartu duen pertsona kopurua		
	Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa		



Helburu operatiboa 5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.

Ekintza 5.3. Aniztasun Jaia

Deskribapen Laburra Urretxuko Aniztasun Jaian eskualdean elkar bizi garen pertsona ororen Aniztasuna balorean jartzen duen topaketa eta ospakizunerako jardunaldia da. Jardunaldian zehar hiru espazio bereizten dira: munduko jakien erakusketa eta dastatzea, aniztasuna ardatz duten ikuskizunak eta tailerrak.

Elkarlanean BAI X EZ Norekin? Komunitate osoarekin

Aniztasunak Guztiak Orokorrean X Konkreteriki

Arduraduna Dinamizatzailea Nori zuzendua? Herritar orori

Espazioa Gernikako Arbola Plaza

Adierazle mota Adierazleak

Ekintza Antolaketa bilera kopurua Tailer, postu, ekintza, ikuskizun kopurua

Emaitza Antolaketa prozesuan parte hartu duen pertsona, elkarte eta erakunde kopurua Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa



Helburu operatiboa 5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.

Ekintza 5.4 Zurrumurruen kontrako hezkuntza proiektua

Deskribapen Laburra Aniztasun Mahaiko talde eragile batean bilduta, estrategia, metodologia eta edukiak landuko dira, urtero, udaberrian zehar, hurrengo kurtso hasieran, udazkenean, alegia, garatzeko asmoz. Prozesu hau 3 etapa ezberdinetan banatuko da: errealitatea aztertu eta hausnarketa egin, estereotipo eta aurreiritzien funtzionamendua ezagutu, eta azkenik, sormena eta artearen bitartez, landutakoa adieraziko dute taldeka.

Elkarlanean BAI X EZ Norekin? Hezkuntza komunitatearekin

Aniztasunak Guztiak Orokorrean Konkretuki Aniztasun Kulturala

Arduraduna Dinamizatzailea Nori zuzendua? Urretxuko DBH4 mailako ikasleak





Espazioa Urretxu eta Zumarragako bigarren hezkuntza zentroak

Adierazle mota Adierazleak

Ekintza Antolaketa bilera kopurua Garatutako saio kopurua

Emaitza Prozesuan parte hartu duen ikasle eta irakasle kopurua Parte hartu duten ikasle eta irakasleek egindako balorazioa



Helburu operatiboa	5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.		
Ekintza	5.5 Zurrumurruak desegiteko aisialdi eskaintza		
Deskribapen Laburra	Herritarren artean bueltaka dabiltzan zurrumurruak desegiteko ekintzak ahalik eta jende gehienari zabaltzeko bide egokiena da ekintza horiek aisialdian txertatzea. Hala, tarte atsegin batean aniztasunari buruzko barne hausnarketa sortzeko aukera izango da. Gainera, ekintza horiek Aniztasuna eta Bizikidetza arloan egiten den lana zabaltzeko eta partehartzea sustatzeko espazio aproposak izan daitezke.		
Elkarlanean	BAI	EZ 	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean		Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailerak	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Urretxu		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Antolaketa bilera kopurua		
Emaitza	Gerturatu eta parte hartu duen pertsona kopurua		
	Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa		





Helburu operatiboa 5. Herritarren artean bizikidetza eraikitzeko bitartekoak eman.

Ekintza 5.6. Irakurketa Errazeko Kluba

Deskribapen Laburra Irakurketa errazeko klubak aditu batek kudeatzen dituen topaketa espazioak dira. Saioen dinamika irakurketarako edo hizkuntza horren ulermenerako edonolako zailtasunak dituzten pertsonen beharretara egokitzen diren materialen irakurketan datza. Material hauek, izenak berak dion moduan, irakurketa errazaren metodologiaz daude idatzita.

Elkarlanean BAI EZ X Norekin? /

Aniztasunak Guztiak Orokorrean X Konkretuki /

Arduraduna Dinamizatzailea Nori zuzendua? Irakurketarako zailtasunak dituzten pertsoneri



Espazioa Aizpuruenea Kultur Etxea

Adierazle mota Adierazleak

Ekintza Irakurritako liburu kopurua
Garatutako saio kopurua

Emaita Prozesuan parte hartu duen pertsona kopurua
Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa



Helburu operatiboa	5. Herritarren artean bizikidetzaren eraketza bitartekoak eman.		
Ekintza	5.7. Laburmetraia zikloa		
Deskribapen Laburra	Aniztasuna eta Bizikidetzaren arloan, diskriminazioari, eskubide urraketari edo beste edozein errealitateri buruzko hausnarketa egiteko asmoz, herriko baliabide kulturalaz baliatuz, urtero, laburmetrai ziklo tematiko bat antolatuko da.		
Elkarlanean	BAI	EZ <input checked="" type="checkbox"/>	Norekin? 
Aniztasunak	Guztiak Orokorrean	<input checked="" type="checkbox"/>	Konkretuki 
Arduraduna	Dinamizatzailea	Nori zuzendua?	Herritar orori
Espazioa	Labeaga Aretoa		
Adierazle mota	Adierazleak		
Ekintza	Landutako gai kopurua		
	Ikusi den laburmetrai kopurua		
Emaitza	Gerturatu eta parte hartu duen pertsona kopurua		
	Parte hartu duten pertsonen egindako balorazioa		



# Urretxuko Aniztasun eta Bizikidetzarako II. Plana



Urretxuko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro